




ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO
Tfinoa.: 313030 e-maila: infogeldo@euskalerrria.org

KAIXO HERRIKIDE!!!!

KONTUKONTARI

EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA IGELDON

Martxoaren 8a, Emakume Langilearen Nazioarteko eguna dela eta, Igeldon ere izan zen egun honen inguruko ospakizunik. Hala ere, Martxoaren 9a izan zen igeldoko emakumeek jai girorako hartu zuten eguna.

Iaz bezala, aurten ere herriko zenbait emakume baserritarrek hartu zuten ospakizun hori antolatzeko ardura, euren ustetan garrantzisia baita egun hau

aitzakiazat harturik herriko emakume heldu zein gazte guztiak biltzea eta jai giroan ongi pasatzea. Bestalde, emakumeen lanak orohar, eta batez ere emakume baserritarraren lanak gizartean duen errekonozimendu exkaxa salatzea eta aldi



berean gizartearentzat betetzen duen paper garrantzitsua plazaratzea ere izan zuten helburutzat.

Aurtengorako prestatutako programa ez zen oso zabala izan baina bai berezia. Iluntzean herrian bildu eta Emakume Baserritarraren inguruko argazki bilduma bat zuten ikusgai (nahiz eta azkenean ikusteko aukerarik izan ez) eta ondorenean Olasagasti Sagardotegian afaria. Afalostean trikitilariak eta bildutako emakume guztien kanturako grinak alaitu zuten sagardotegia, giro benetan goxoan. *Aze sorgin kuadrilla!!!!*

Hala, egun honen inguruaz, nahiz Emakume Baserritarraren bizimodu zein egoeraren berri izateko, antolatzaile taldean izan zen Marian Anzari elkarrizketaxo bat egin diogu. Hemen bere hitzetatik jasotakoa, nahi duenarentzat zer hausnartu ugari ematen duena.

"Jende askok nahi du baserria bertan bizitzeko, baina ez bertatik bizitzeko"

Marian Anza Ibaetan jaioa da. Ama Aiakoa zuen eta berea eredu izanik, agudo ikasi zuen emakume baserritarraren zeregina zein zen. Etxetik kanpo lan egitea berriz, bere kabuz ezagutu zuen hamalau urterekin. Ikasten jarraitu nahi ez eta etxetik gertu zuen inprentan

sartu zen lanean. Horrez gain, tabernan zerbitzatzen eta liburudendan ere aritua da. Dagoeneko 23 urte dira Igeldora ezkondu zela eta egun, nekazaritza ekologikotik eta nekazal turismotik bizi dira senarraren jaiotetxean, Aristondo baserrian.

-Nolakoa da zure lanegun normal bat?

Nekazal turismoan jendea baldin badugu, goizeko 9tarako gosaria prest uzten diet guztiei. Ondoren, kalera jaisten naiz eskatu dizkiguten produktuen banaketa egitera. Batik bat belar-dendetan saltzen dugu. Kaletik itzultzen naizenean, gelak txukuntzen ditut. Arratsalde partean berriz, baratzean aritzen naiz zer edo zer egiten. Gehienbat biltzen, direla tomateak, piperrak, ilarrak... Eta horrez gain, etxeko lanak!

-Oporraldirik hartzeko aukerarik izatenal duzu?

Egia esan guk hemen ez dugu abererik eta alde horretatik lasaiago bizi



gara. Hala ere, oso lotua da. Nekazal turismoa urte guztian dugu zabalik eta, bestela ere, barazkiak ezin dira zaintzarik gabe utzi. Gainera oiloak ere baditugu beraz... Oporrik ez, oraingoz behintzat!

-Nekazal turismoak baserritar bizimoduari eusteko bidea izan daitezkeela uste duzu?

Jendeak baserri giroa ezagutzeko aukera izaten du eta asko gustatzen zaie honelako lekuetara etortzea. Hala ere, baserritar bizimoduaren iraupena beltz ikusten dut. Jende askok nahi du baserria bertan bizitzeko, baina ez bertatik bizitzeko.

Oso gogorra da. Gainera, ez dago laguntzarik, kontrakoa baizik, muga asko jartzen dituzte.

-Zer nolako mugak?

Esate baterako, Bretxako merkatuarekin egindakoaz gogoratu naiz. Ikusi besterik ez dago zer egin duten bertan. Lehen zegoen merkaturia berritu beharrean, bai zera! Erdian denda gehiago jarri eta emakume baserritarrak bazter batean utzi dituzte. Azokak behean jarraitzen du baina hori ez da batere mesedegarria, ezkutuan

utzita kanpotarrek askotan ez dute ikusi ere egiten. Pena handia ematen dit.

-Industria handien aurrean nekazaritza naturalak ba al du etorkizunik?

Oraindik jendea ez dago oso mentalizatua, pixkanaka-pixkanaka ari dira ekologikoaren alde egiten baina zaila dago industria handiei aurre egiten. Nekazaritza ekologikoa gehiago potentziatu beharko litzateke.

-Begiekin jaten duen jende asko izango da, ezta?

Nekazaritza ekologikoak produktuaren kalitatea bermatzen duen arren, askok itxuraren arabera jokutzen dute produktu naturala den edo ez erreparatu gabe. Batzuek argi izaten dute non dagoen kalitatea baina beste batzuk, xomororen bat ikusi orduko...

-Emakume Baserritarren Elkartea, baduzu bere berri?

Bai, noski! Sei urte daramatzat elkartean Igeldoko beste sei emakumerekin batera. Bertan biltzen garen emakumeok bilerak eta ekitaldiak egiten ditugu emakume baserritarren baldintzak hobetu eta dagozkigun eskubideak lortu asmoz.

-Zer nolako arazoekin egiten du topo emakume baserritar batek?

Hasteko gizarte-segurantzarekin. Oso emakume gutxik dute gizarte-segurantza eta beraz, bajarik ere ez da

izaten guretzat. Baserriko emakumeak ez dauka ezer ere ez. Baserriaren jabegoan ere ez du pisu handirik, baserriaren titularra gizonezkoa izaten da beti. Pixkanaka badoaz gauzak hobetzen baina egiteko asko dago oraindik.

-Martxoaren 8an Emakume Langilearen Eguna izan zen. Egin al zenuten ospakizun berezirik herrian?

Bai, emakumeon arteko afaria antolatu genuen herrian eta bertakoak ez ezik Usurbiletik ere animatu ziren batzuk. Guztira 44 emakume elkartu ginen eta oso ondo pasa genuen. Afaldu ondoren abesten eta dantzari aritu ginen.

-Lehenago ere egin izan duzue honelako zerbait?

Hemen, Igeldon, bigarren urtea da afaria egiten dela baina bestela, ez. Hala ere, EBELekin afariak ez ezik, txangoak, hitzaldiak, bilerak eta beste hainbat gauza egin izan ditugu emakume baserritarrok. Gu ere hemen gaudela konturatu daitezten, behintzat.

-Zer iritzi duzu honelako ekimenen inguruan?

Nire ustez beharrezkoa da emakumeok bizi dugun egoera salatzea baina afariarena, niretzat, Emakume Langilearen Eguna ospatzeko baino, gehiago izan zen emakumeok elkarrekin biltzeko aitzakia bat. Izan ere, Emakume

Langilearen Egunak egunero izan beharko luke.

Marian Anza/Aristondo nekazal turismoa

GAI LIBREAN

IRITZI BAT BAINO EZ

Hemendik aurrera ataltxo honetan igeldotarrok edozein gaiaren inguruan gure iritzia argitaratzeko aukera izango dugu.

Oraingoan niri egokitu zait neurea kaleratzea. Iritzi guztiak errespetagarriak direla dio diskurtso politikoki zuzenak, beraz lasai-lasai egon naiteke idatziaz idatzi; izan ere, irakurle maitea, neure iritzia (igeldotar guztiak baserritar ezjakinak direla adibidez) errespetatu beharrean aurkitzen zara ez baduzu jende zuzena eta tolerantarearen multzotik kanporatua izan nahi.

Ui ui ui ze beldurra!

Beldurrak beldur ez nator bat iritzi guztiak errespetagarriak direla diotenekin. Norbaitek hau edo hura esaten badu eta besterik gabe ergelkeria hutsa iruditzen bazait ez dakit zergatik errespetatu behar dudan ergelkeria iruditzen zaidan iritzia. Zenbat aldiz entzun eta ikusi ote dugu tertulia aski xuxenetan "ez nator bat zure iritziarekin baina errespetatzen dut" gisako esaldi

hutsalak nahiz eta argiro sumatu hori esaten duen kalakariak ez duela inolaz ere "arerioaren" iritzia ontzat hartzen egiten dituen ageriko sufrimenduzko keinuen aurrean? Nago moduari gehiago erreparatzen zaiola mamiari baino...malo!

Beste kontu bat da bakoitzaren adierazpen askatasuna. Alegia, nahiz eta iritzi batzuk tontokeri hutsa iruditu, norbanakoak nahi duena esateko eskubide osoa du, eta horixe da hain zuzen ere defendatu behar dena sutsuki: adierazpen askatasuna.

Izan ere, adierazpen askatasuna da edo ez da, baina ez dago erdibiderik. Bakoitzak esan beza nahi duena eta gero jaurtikitako iritziaren arrakasta jendarteak berak epaituko du, baina ez ahaztu ergelenez saltzen dutela gehien! Guztiarekin ere, hemen esandako guztia iritzi bat baino ez da.

Buskabaztarrak

OHARRA:

Iritziak infogeldo@euskalerrria.org helbidera bidali izen-abizenekin eta kaleratzean goitizenarekin kaleratzea nahi bada goitizena ere adierazi.

HERRIAN ZE BERRI?

HERRI KONTSEILUKO BILERAN HITZ EGINDASKOAK

Gurasoen elkartekoak

0-2 urteko haurtzaindegia.

Gurasoen elkartekoak Eskola Berrian haurtzaindegia jartzeko gela bat eskatu zuten idatzi baten bidez. Ezinezkoa izanez gero, Eskola Zaharreko beheko solairua erabiltzeko proposamena egin zioten Herri Kontseiluari. Herri Kontseiluak proposamena onartu zuen eta Eskola berrian haurtzaindegia egiterik ez balego, lekuren bat bilatzen saiatuko litzatekeela adierazi zuen.

Dena den, Herri Kontseiluak bizpahiru ohar gehitu dizkio txostenari eta honen inguruan hitz egiteko bilera bat egin zain geratu dira.

Eskola berriaren instalazioen erabilpena. Gurasoen Elkartekoek ikas orduetatik kanpo ere, herriak eskolako instalazioak erabiltzeko aukera izan behar zuela proposatu zuen. Alde batetik, kanpo instalazioak (jolas lekuak...) arratsaldeetan,

asteburuetan eta oporretan erabili ahal izatea. Eta bestetik, barruko instalazioak, hau da, gelak, hainbat ekintzetarako baliogarriak izatea, hala nola, ikastaroetarako, aerobic egiteko... Proposamen hauek kontuan hartuz, bilera egin da baina kanpo instalazioei

dagokienean soilik. Gainera, ezer erabaki aurretik, herriak eskola ezagutu beharko lukeela uste dute Gurasoen Elkarteak eta baita Herri Kontseiluak ere. Horretarako aurkezpen jaialdia antolatzen ari dira.

Eskola berriaren aurkezpena. Herriari eskola berria erakusteko aukeratu duten data, Maiatzaren (18-20egunak) hirugarren astea da. Musikarte eta Baserritarren artean antolatzen ari diren festarekin bat egingo du. Aurkezpena guztiz irekia izango da, eta eskola berriko instalazioak ezagutzeko aukera izango du nahi duen orok.

Hirigintzako GAIAK

KASKOA-VENTA ALEGRE

Herri Kontseiluak jakinarazi duenez, bilera berezia egin zen Eskolako guraso, inguruko biztanle eta tabernariek Kaskoa-Venta Alegreko egoeraz hitz egiteko. Guztien artean komisia osatu zuten eta Udaletxeko teknikariarekin bildu ziren euren proposamenen berri emateko. Honakoak dira eskakizunak:

Alde batetik, Pakoneko (Mendizorrotz jatetxea) parkinaren inguruan eta eskola-frontoiaren parean ibilgailuen abiadura moteltzeko erreduktoreak jartzea eskatzen da. Bestetik, herriaren sarreran arriskua adierazteko erabiltzen diren seinaleak jartzea. Eta azkenik, Venta Alegreko bidegurutzerako soluzioren bat aztertzea.

Esan bezala, Udaletxea jakinaren gainean dago baina ez dute erantzunik eman oraindik.

El casco-Venta Alegre: se creó una comisión para solicitar al Ayuntamiento la instalación de reductores de velocidad en las inmediaciones del bar Mendizorrotz y de la escuela-frontón. Del mismo modo, se pide también a la entrada del pueblo poner señalizaciones de precaución. Se pide, a su vez, una solución satisfactoria a la problemática salida que se tiene que realizar a la altura de Venta Alegre. Por el momento no ha habido respuesta por parte del Ayuntamiento.

AZKEN SENTENTZIEN ERABAKIAK

Udaletxeak ez du sinatuko eramandako proposamena. Hala ere, epailetako kostuak barkatzeko prest azaldu da, baldin eta Igeldoko Herri Kontseiluak ere, epai honetan sortu diren kostuak, beraiei barkatzea erabakitzen badu. Bata bestearen truke, alegia. Herri Kontseiluak egoki ikusten du erabaki hau. Izan ere, Herri Kontseiluak 10.000 euro ordaindu beharko lituzke eta Udaletxeak Elena Perezen kasuan 2000 bakarrik. Dena den, oraindik itzarotea erabaki da, beraiek zer dioten jakin arte eta falta diren sententziak atera arte.

ETXEA EGITEKO UDALETXEAN ESKATUTA DAUDEN BI BAIMENEI BURUZKOAK

Udaletxeak ezezkua eman die biei. Hala ere, interesgarriz jotzen dira Udal Batzordeak hartutako erabakiak. Izan ere, lehenengo aldiz zalantzan jarri da Diputazioko Nekazaritza Departamenduak egindako txostena. Hartutako erabakiaren arabera, ez da egoki ikusten bi kasu hauek nekazal esplotazio kontsideratzea. Horregatik, kasu hau aurrerago egin daitezkeen beste eskaerarako eredarri izan daitekeela uste du Herri Kontseiluak. Horrez gain, erabakiaren Kopia

Diputaziora bidaltzea onartu dute Udaletxean.

Últimas decisiones: el Ayuntamiento ha denegado 2 peticiones de construcción de casas al entender que no cumplían las características que requiere una explotación agrícola. Es decir, se cuestiona por primera vez el informe realizado por el Departamento de Agricultura de la Diputación. Esta decisión puede ser ejemplarizante, y la Herri Kontseilua valora dicha decisión positivamente.

LUR BETETZE LANAK

Agiti 42an burutzen ari diren lur betetze lanak aipatzen genituen aurreko alean. Hori dela eta, Igeldoko Herri Kontseiluko hiru kide bertara joan ziren egoera aztertu eta argazkiak ateratzera. Ondoren, Udaletxera idatzi bat bidali zen lur betetze hau kontrolatuta dagoen edo ez jakiteko. Horrez gain, idatzi berean beste hiru leku ere aipatu ziren.

Dagoeneko, Agiti 42an egin dituzte azterketa topografikoak. Txostenaren arabera, 4.400 m³koa da bota duten kantitatea, beraz, 400 m³ botatzeko baimena dute oraindik.

Bestetik, Juandegi txikiko lursailean lurrak botatzeko baimena eskatu dute. Herri Kontseilukoek baldintzak aztertuko dituztela adierazi dute eta lur betetze lanez gain, baita itxuteren inguruan ere.

ARRIOLA BASERRIAN ESKATUTAKO BAIMENA

Ikuilu bat egiteko baimena eskatu dutela eta honi buruzko informazioa (espedientearen kopia) eskatu zen Udaletxean. Dirudienez, lehen irakurketa egin eta gero, alegazioak aurkezteko arrazoiak ikusten dira.

NEKAZARITZAKO DIPUTA-TUAREKIN IZANDAKO BILERA

Askotan tranpa egin izan dutela eta lurrei erabilpen desegokia ematen zaiela onartu dute. Hala ere, beraiek ezin dutela gehiago egin eta azkeneko erabakia Udaletxearena denez, Herri Kontseilukoek haiekin hitz egin beharko luketela esan diete. Azken finean, beraiena txosten informatiboa besterik ez omen da.

ITURRIETAKO PLAZATIK KANPOSANTURAINO TXI-KITUTAKO BIDEA

Hodidak pasa behar zituztela eta, ohi den moduan, bidea hondatuta utzi zuten. Hala ere, eginbeharrekoak bukatu ostean, bideak modu txarrean jarraitzen du. Dagoeneko Iturrieta pareko bidea konpondu dute baina hortik aurrekoa ez. Udaletxera deituko dutela jakinarazi dute Herri Kontseilukoek.

ESKOLA BERRIAREN INGU-RUAN SORTUTAKO ARA-ZOAK

Alde batetik, frontoian filtrazioak sortu ziren. Bestetik, Venta Alegre aldeko paretak urbide berria sortu zuen berriz eta urak errepidera zihoazen bertan lur jausiak eraginez. Herri Kontseiluak idatzia sartu du Udaletxean arazo hauek konpontzeko.

IGELDOTIK ITURRIETARAI-NOKO ESPALDIA

Herri Kontseiluak planoak enkargatu zituen Udaletxean espaldia egiteko. Eskariari jaramon eginez, proiektua gauzatzen hasiak dira baina, arauak hala

eskatzen duela eta, espaloi zabala (2 metrokoa) egiteko asmoa dute. Horrez gain, espaloi guztia ez da alde beretik joango. Kanposantutik Etxe Nagusirako tartean (goranzko zentzuan) ezkerretik egin nahi dutela dirudi.

FRONTOIAREN TEILATUA

Pasa den hilabeteko ekaitzaren eraginez, teilatu zati bat erori egin zen frontoian. Jakinarazi dutenez, lanean hasiak dira baina lehen urratsa garbiketa izango dela diote. Hala ere, frontoia erabili daitekeela esan dute.

PILOTEGITIK HERRE- ROENERA DOAN BIDEA

Bide honetan egin nahi den konponketa lehiaketara atera beharko dutela esan dute Udaletxean, presupuestoa 60.000 eurotik pasatzen baita. Honek obraren atzerapena ekar dezakeela uste du Herri Kontseiluak.

Sindikaturia

Udaletxetik ez da oraindik erantzunik jaso. Enrique Ramos zinegotziarekin eta Atxukarrorrekin hitz egiten saiatuko dira Herri Kontseiluak.

Eskola zaharra

Aurreko Orri Informatiboan, Eskola Zaharraren kudeaketaren nondik-norakoak aipatu genituen. Eraikinari, solairuz solairu, eman nahi zaion erabilpena herriko hainbat talderen artean adostu ondoren, txosten bat bidali zitzaion Hezkuntza eta Ondare Sailari erabakitakoaren berri emanez. Herri Kontseiluak adierazi duenez, bi sail hauek Auzoetako Departamenduaren esku utzi dute gaia eta orain, Eusko Jaurlaritzaren idazki baten zain dira bilerarako ordua eta eguna zehazteko.

San Isidro eguna

Maiatzaren 15ean San Isidro eguna dela eta, ohi bezala Baserritarren eguna ospatuko da. Baserritarrek euren eguna astegunean

izan beharrean (aurten asteartean tokatzen baita) asteburuan ospatzea erabaki dute.



Honela, Musikartekoek antolatutako duten asteburu kulturalarekin eta Eskola Berriaren aurkezpenarekin bat egingo luke. Leskarri abesbatza ere egun horietan emanaldiren bat edo beste emateko prest agertu da.

Erraustegia

Nahiz eta Igeldon plataformarik ez egon, Herri Kontseilutik bateren bat Zubietako bileretara joango dela erabaki da.

UDALINFO makina

Udaletxeak Igeldon jarri nahi zuen tresna dagoeneko gure artean da. Kultur etxean dago, zehazki, baina ez dute honen inguruko berri handiegirik eman oraindik.

Kultur etxeko ADSLa

Jakingo duzuen bezala, Kultur etxeko ADSLa denbora batez izorratua egon da. Dagoeneko konponduta dago eta mantenimenduko segurua ere egin da. Dena den, bada beste oztoporik ADSLari dagokionean. Izan ere, Igeldon dagoen kobertura eskasa dela eta, leku gehienetan ezinezkoa da ADSLa jartzea. Honen inguruan zer egin erabakitzeke geratu da.



